

BERDINTASUNEAN OINARRITUTAKO KOMUNIKAZIOA

IRUNGO UDALA, IRUDI ETA MEZUEN ERABILERARAKO GIDA

AURKIBIDEA

1. Atarikoa.....	3
2. Zergatik zaindu behar dugu komunikazioa?.....	4
3. Araudia.....	5
4. Oinarrizko kontzeptuak.....	8
5. Mezuak ematerakoan zer hartu behar da kontuan?.....	10
6. Euskaraz, hizkuntzari dagokionean, zein irizpide jarraitu behar ditugu?.....	12
7. Irudiak erabiltzerakoan kontuan izan beharrekoak.....	17
8. Adibideak.....	19
9. Glosategia.....	30

1. Atarikoa

Irungo Udalak 2001ean onartu zuen Emakume eta Gizonezkoentzako tokiko I. Berdintasun Plana, eta 2002az geroztik Gizarte Ongizate sailaren barnean berdintasunari lotutako jardueren garapena esleitu izan zaion teknikari bat egon da. Emakumezko eta gizonezkoen arteko aukera berdintasunaren aldeko lana eta bidea hasi ziren horrela. Orain, zeharkakotasunaren esparruan egin den lanean sakondu nahi da. Berdintasunak esparru desberdinak ditu, eta arlo guztietan eskubide berdintasuna bermatu dadin lan egingo dugu. Landu beharreko aspektuetako bat komunikazioarena da: emakume zein gizon guztiak barneratzen dituen komunikazioa bermatu behar dugu.

Irungo Udaleko III. Berdintasun Planean jasotzen da hizkuntza eta irudiak modu ez-sexistan erabiltzeko lan egitea. Horretan laguntzeko, udal-langileak tresna ezberdinez baliatzea egoki ikusi da, eta tresna horien artean kokatuko litzateke gida hau. Erakundeetan diskriminaziorik egon ez dadin lan egingo dugu, eta horretarako beharrezkoa da irudiak eta hizkuntza egoki erabiltzea. Udaletxean diskriminaziorik ez egoteak gainera ez du soilik erakundearen kultura hobetzen eta elkarbizitza ahalbidetzen, ziur gaude horrek, Irungo Udalarekin harremana duten pertsona zein erakunde guztiengan eragingo duela, aldaketaren eredu izanik.

Gida honetan, komunikazioari dagokionean berdintasuna bermatu ahal izateko bete beharreko irizpideak topatuko dituzu. Komunikazioa hizkuntzan dago, ahozkoan, idatzizkoan, keinu bidezkoan, paperean edo euskarri digitaletan, irudi edota argazkietan... Edozein dela ere aukeratutako adierazpen modua, gizon eta emakumeak maila berean barneratzen dituen komunikazioa erabiliko dugu.

Komunikazio ez-sexista erabiltzeko ditugun arrazoiak, honen inguruko araudiak eta irizpideak, oinarrizko kontzeptuak, mezuak pentsatzerakoan kontuan izan beharrekoak, hizkuntzaren eta irudien erabilerarako arauak, adibideetan oinarritutako gomendioak eta terminoen glosategia biltzen ditu gida honek.

2. Zergatik zaindu behar dugu komunikazioa?

- Diskriminaziorik ez eragiteko.
- Lehen eta bigarren mailako hiritarrak ez bereizteko.
- Emakumeen bisibilizazioan eragiteko.
- Generoaren araberako rol banaketa tradizionalekin hausteko, estereotipoei aurre eginez eta aukera berdintasuna sustatuz.
- Gizarte-balioak eraldatzeko.
- Legea betearazteko.
- Komunikazio guztietan arau eta irizpide berdinak erabiltzeko.
- Erakundeetan barnera begira eta kanpora begira berdintasunaren kultura zabaltzeko.
- Irungo Udalak berdintasunaren alde duen konpromisoaren berri emateko.
- Berdintasunaren alde erakundeak hartutako bidean lanean jarraitzeko.

3. Araudia

NAZIOARTEAN

Nazio Batuen Erakundea

- Beijingo adierazpena eta Ekintzarako Plataforma. Emakumeei buruzko Munduko IV. Konferentzia, Beijin, 1996ko iraila.

UNESCO

- Biltzar Orokorra, 24. Bilera, 1987. 14.1 Ebazpena: 1. atala, 2. paragrafoa.
- Biltzar Orokorra, 26. Bilera, 1989. 109 Ebazpena: atal dispositiboa, 3. paragrafoa.

EUROPAN

Europar Parlamentua

- Emakumeen Eskubideak eta Aukera Berdintasunerako Batzordea, 2003ko urtarrilaren 28an.

Europar Komunitateetako Batzordeak

- Batzordearen Komunikazioa Kontseiluari (1985eko abenduak 20).
- Gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasunerako ekintza komunitarioetarako programa (1981-2009).

Europar Kontseilua

- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Batzordea (CAHFM), 2. bilera (1984ko otsailak 7-10).
- Terminologia batzordea CAHFM-n, 5. Bilera, (Estrasburgo, 1986ko maiatzak 27-30).
- Gomendioak R(90), 1990eko otsailaren 21ean, kontseiluko kide diren Estatuetakoko Ministroen Batzordea hizkuntzan sexismoa deuseztatzeari buruz, Ministroen Ordezkarien 434. Bileran erabakia (1991), Estrasburgo, Europar Kontseilua, Edizio eta Dokumentazio Zerbitzua.

ESPAINIAR ESTATUAN

Gizarte gaietarako Ministerioa, berdintasun Ministerioa, Emakumeen Institutua

- Hizkuntzari buruzko Aholku Batzordea (NOMBRA batzordea, 1994).
- 1686/2000 Errege Dekretua, urriak 6koa, Emakumeen eta Gizonen aukera Berdintasunerako Behatokia eratzen duena.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduak 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako babes neurri integralak (2004ko abenduak 29ko EAO).
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoak 22, emakume eta gizonen berdintasun egiazkorako, 14. art.
- •Aukera Berdintasunerako Plan Estrategikoa (2008 - 2011).

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

• 4/2005 Legea, otsailak 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako. Gizarte-komunikabideei eta publizitateari dagokionean zehazten da 26. art.: “Gizarte-komunikabideek, beren programazioak egiteko orduan, ez dute hizkera sexistarik erabili behar, eta emakumeen parte-hartze aktiboa eta sexu bien presentzia orekatua eta irudi anitza bermatu behar dute, edertasun-kanonetatik eta sexu bakoitzak bizitzako arloetan betetzen dituen eginkizunei buruzko estereotipo sexistetatik aparte, eta bereziki zaindu behar dituzte ume zein gazteentzako edukiak. Bestalde, emakumeek sustatutako edo emakumeek zuzendutako jardura politiko, sozial eta kulturalen zabalkundea bermatu behar dute, gizonetikiko berdintasunean, eta orobat emakumeak ahalduntzeko lagungarri diren jarduerak ere”. Y lan-hitzarmenen inguruan honako jasotzen du 42.art.: “Autonomia Erkidegoko Administrazioak, hitzarmen kolektiboen erregistroaren bitartez, hitzarmenotan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkako klausularik ez egotea, hizkera ez-sexista erabiltzea eta jazarpen sexistaren aurka berriazko neurriak jasotzea zaindu beharko du. Horrekin batera, sexuaren ziozko bereizkeria kontrolatzeko eta erazteko ikuskatzailatza bultzatuko du Administrazioak.”.

- EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Plana. IX. Legealdirako jarraibideak (2009-2012)
- Emakundek gida desberdinak argitaratu ditu araudia betearazteko irizpideak emanaz. Euskadiko kutxari eragiten dioten irizpideak dira:
 - 1988: Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak.
 - 2005: Guía para la comunicación en Igualdad.
 - 2008: Euskararen erabilera ez sexista.
 - 2010: MS Word-erako euskarazko genero zuzentzailea
 - 2011: Guía de lenguaje para el ámbito de la empresa y el empleo.

IRUNGO UDALA

- (2001-2005) Irungo Emakumeentzako I.Ekintza positiboen Udal Plana
- (2008-2011) Irungo Emakume eta Gizonen II. Berdintasun Plana
- (2013-2016) Irungo Emakume eta Gizonen III. Berdintasun Plana

4. Oinarrizko kontzeptuak

- **Berdintasunezko komunikazioa edo komunikazio barneratzailea:** Hizkuntzaren eta irudien erabileran emakumeen zein gizonenganako tratua berdintasunean eta errespetuan oinarritzea da, horretarako beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak erabiliz.
- **Androzentrismoa:** Gizona unibertsoaren zentro eta gizona -arra- gizadi osoaren pareko moduan agertzen duen ikuspegia. Androzentrismoaren ondorioetako bat da, emakumeak ezkutuan geratzea, definiziorik ez jasotzea eta emakumeen errealitatea kontuan ez hartzea (emakumeen inbisibilitatea).
 - **Androzentrismo linguistikoa:** gizona erreferente unibertsaltzat hartzen duen gertakari linguistiko sorta, emakumeak inbisibilizatuz edo diskurtsoetatik emakumeak baztertuz eta agertzen diren kasuetan bigarren mailako gisa aurkeztuz.
 - **Hizkuntza androzentrikoa:** emakumeen inbisibilizazioa edo gizonetikiko menpekotasuna agertzea. Behin eta berriz maskulinoa erabiltzea gizon eta emakumeei erreferentzia egiteko, eta aldiz, soilik tradizionalki genero femeninoarekin lotuta dauden jarrera, jokaera, lanbide, eta roletan femeninoa erabiltzea. Horrela, idazteko modu androzentrikoan, gizonen esperientzia jasotzen da, baina emakumezkoena ahaztua geratzen da.
 - **Irudi androzentrikoak:** Emakumeak egon badauden eremuak irudikatzerakoan emakumeek ez parte-hartzea ez eta agertzea ere.
- **Sexismoa:** Pertsonak diskriminatuak izatea sexu arrazoiak tarteko, bakoitzaren merituak kontuan hartu gabe. Hitz hau erabiltzen da modu sistemikoan ematen diren banakoen arteko sexuagatiko diskriminazioez hitz egiteko ere.
 - **Sexismo linguistikoa:** hizkuntzaren erabilera diskriminatzailea emakumeak eta gizonak estereotipoekin eta desberdintasunez aurkeztuz, batzuetan emakumea gutxietsia agertuz.
 - **Hizkuntza sexista:** emakumeen irudikapen partziala eta diskriminatzailea egitea emakumeei eta gizonei balio, gaitasun eta rol desberdinak egotziz, soilik, sexuaren arabera. Hizkuntzaren bidez sexismoak hierarkia berresten eta mantentzen du, emakumeak gutxietsiz eta/edo ahul, pasibo, menpeko edo antzerako balioekin aurkeztuz.
 - **Irudi sexista:** irudietan emakumeak eta gizonak modu partzialesan eta diskriminatzailean agertzea.

- **Hizkera ez sexista:** errealitatea osotasunez agertzen duen hizkuntza barneratzailea da; errealitate horren parte diren eta bertan garatzen duen inor ezkututzen eta gutxiesten ez duena.

- **Generoaren dekonstrukzioa:** Kulturaren eraginez jasotako femeninitasun- eta maskulinitasun-tradizionalaren inguruko ideiei aurre egitea berdintasunean oinarritutako eredu berriak proposatuz.

- **Hizkuntza generikoa edo orokorra:** genero biak kontuan hartzen dituen hizkera.

- **Irudi edo ikono neutroa:** generorik egozten ez zaion irudia edo ikonoa.

5. Mezuak ematerakoan zer hartu behar da kontuan?

- Komunikazioaren eremu desberdinetan, ahozkoan, idatzizkoan, irudietan nahiz argitalpen digitaletan bermatu behar da hizkuntzaren erabilera egokia.
- Kontuan izan, fenomenoaren gakoa ez dagoela hizkuntzan. Hiztunen errepresentazio mentalean dago, eta horrenbestez hiztunak hizkuntzarekin egiten duen erabileran.
- Ematen diren mezuetan simetria egon behar da. Generoaren araberako desberdintasunik ez da egon behar eta ez da genero bat bestearen aldean goratu edo gutxietsi behar sexu arrazoiak tarteko.
- Ematen diren mezu kopuruetan simetria egon behar da. Hau da, emakumeek eta gizonak izenpeturiko mezuen edo adierazpenen kopurua parekoa izan behar da euskarri bererako.
- Ematen den mezua diskriminatzailea izan ez dadin, esan nahi dugun hori egokia al den galdetu behar diogu gure buruari.



Hiru galdera mezua egokia den jakiteko:

- **Ematen dugun irudi soziala erreala al da? Gizonak eta emakumeak agertzen al dira?**
- **Emakumeak eta gizonak maila berean agertzen al dira?**
- **Genero rol tradizionalak gainditu eta berriak proposatzen al dira?**

- Komunikazio egoki baterako **ARAUAK**:

Irungo udalaz aritzerakoan emakumeak zein gizonak hartuko dira kontuan. Hizkuntzari dagokionez forma generiko egokiak bilatuko dira eta irudietan emakumeak bisibilizatuko dira.

1.- Oro har komunikazioetan, hartzaillearen generoa zehaztu gabea denean edota publiko zabal bati zuzendua dagoenean **generikoa erabiliko da**.

2.- **Emakumeak**, genero arrazoiak tarteko, **bigarren mailako bihurtzen dituzten mezuak baztertuko dira**.

3.- **Emakumeak eta hauen papera bisibilizatzeko** ahalegin berezia egingo da.

4.- **Emakumeen eta gizonen ezaugarri estereotipatuak** erabiltzea saihestuko da. Emakumeak objektu bihurtzen dituzten mezuak ez dira erabiliko. Hauen ordeztu, eredu berriak erabiliko dira.

5.- **Alderdi anekdotikoak ez dira garrantzitsuak**. Gizon eta emakumeen errealitatea da azaldu behar dena, kasu konkrituak ez dira beti errepresentagarriak.

6. Euskaraz, hizkuntzari dagokionean, zein irizpide jarraitu behar ditugu?

Euskarak, gramatikari dagokionean ez du generoa bereizten. Aldameneko beste hizkuntzen aldean, zentzu honetan oztopo gutxiago ditu. Aipatu bezala, hizkuntzak berak baino, honen erabilerak egiten du hizkuntza desberdintzaile. Batetik eman nahi den mezuak eta bestetik mezu hori nola ematen den. Euskararen ere badaude kontuan hartu beharreko irizpideak bada.

GOGORATU!

- **Simetriaren araua:** zerbaiten inguruan zalantza dugunean edo gaizki egon daitekeela uste dugunean, beste generoari aplikatuko diogu. Desegokia dela iruditzen bazaigu, birpentsatu egin beharko da nola esan.

Forma generikoa (orokorra) nola erabili behar da?

- Gizon, gizaseme eta gizonezko forma maskulinoak dira. Forma orokorrerako **gizaki eta giza- erabiliko dugu**. Izena eta gizon egituraren ordeztu, "-ari" atzizkia edo "-gile" erabiliko da.

Oker

(Orokorra) Gizasemeak fin aritu ziren lasterketa guztian

Zuzen

Korrikalariak fin aritu ziren lasterketa guztian

Forma espezifikoa erabili behar al da?

- Gizartea bi generok osatzen dugu, bien interesak asetu behar dira. Emakumeei buruz hitz egiten ari bagara zehaztu, eta berdin gizonekin. Ez erabili lagun, pertsona, haur... forma orokorrak zehatzei buruz ari bagara.
- Gizona hitz elkarketan agertu daiteke soilik esanahi espezifikoa duenean. Ezagutu gabeko generoaz ari garenean ezingo da elkarketa hau erabili. Emakume bati dagokionean emakumea erabili ahal izango da, eta generoak orokorra izan behar duen kasuetan kolektiboa (jendea) edo osagaia (-lari, langile, pertsona) erabili daiteke

Oker

Enpresa-gizonak ohartu dira gauzak ez direla horrela

(Orokorrean) Lege-gizonak ez dituzte neurriak hartu

(Orokorrean) Plazagizonak dira bertsolariak

Zuzen

Enpresa jendea ohartu da gauzak ez direla horrela

Legelariak ez dituzte neurriak hartu

(Emakumeei) Plazandrea da Maialen Lujanbio

(Gizonei) Plazagizona da Andoni Egaña

Zer gertatzen da izenekin?

- Euskaraz hainbat izenek generoa dute. Pertsonak (neska, mutik, gizon, emakume, andre...), ahaidetasuna (seme, alaba, aita, ama, izeba, osaba, aitona, amona...), animaliak (behorra eta zaldia, behia eta zezena, oiloa eta oilarra...), jarduerak (inudea, etxekoandrea, prostituta, moja, fraidea, apaiza, erregea, maisua...) edota hauetatik eratorritakoak (amabirjina, aitabitxia, aita-santua...) izendatzerakoan gertatzen da. Hauen artean oso izaera desberdineko izenak daude eta kasuan kasu diskriminaziorik egiten ez dela bermatu behar da.
- Generoa duten izenak pluralean edo modu generikoan erabiltzerakoan femenino eta maskulinoa hitz elkartuan erabili behar da (seme-alabak, jaun-andreak, neska-mutilak, andre-gizonak...). Maskulino orokortzaileak direnak erdararen kalkoak dira eta ez dira egokiak.

Oker

(Orokorrean) Zuen semeentzako ikastaro bereziak ditugu.

(Orokorrean) Kaixo jaunak!

Zuzen

Zuen seme-alabentzako ikastaro bereziak ditugu.

(Orokorrean) Kaixo jaun-andreak!

- Lanbideen izenetan gaztelaniatik hartutako kasuetan Euskaltzaindiak gaztelaniazko hitzen forma mantentzea proposatzen du (gaztelaniaz genero maskulinoa dute, baina euskaraz ez: notarioa, presidentea, filosofoa, filologoa, etab.).
- Euskaraz generorik gabeko izen asko dago.
- “-sa” atzizkia ez da erabili behar. Zubereraz bizirik dagoen arren (laborarisa, jainkosa, alarguntsa, abadesa, alkatesa), hegoaldean “-ren emaztea” esateko erabili baita. Beraz, generoa zehaztu nahi bada, neska/mutil edo gizon/emakume erantsi behar da (neska aktorea, mutil dantzaria).

Oker

Alkatesa etorri da bisitan.

Aktorea onenaren saria eman diote.

Afrodita maitasunaren eta edertasunaren jainkosa zen.

Zuzen

Alkatea etorri da bisitan.

Aktore onenaren saria eman diote.

Afrodita maitasunaren eta edertasunaren jainkoa zen.

Pertsonen tratamendua

- Izena eta jauna formula saihestuko behar da forma generikorako eta hurrengo hiru aukeren artean aukeratu: 1) Izena. 2) Izena eta jaun/andrea (zein generotakoa den ez dakigunean), 3) Izena eta jauna edo izena eta zuzendaria (zein generotakoa den dakigunean).

Oker

Arlo-zuzendari jauna (orokorrean)

Zuzen

(Orokorrean) Arlo-zuzendaria / Arlo-zuzendari jaun/andrea
(Emakumea) Arlo-zuzendari andrea
(Gizona) Arlo-zuzendari jauna

- Gaur egun pertsonen egoera zibilak ez du tratamendu berezirik behar. Andrea edo Jauna erabiliko dira beraz kasu guztietarako, eta emakumeen kasuan ez da andereño erabiliko.

Oker

Maria Alkorta andereñoa.

Zuzen

Maria Alkorta andrea.

- Generoen arteko aipamen asimetrikoak ez dira erabili behar. Emakumeak ez dira aipatu behar gizonekin duten harremanaren arabera. Pertsona guztiak maila berean aurkeztu behar dira:

Oker

Bi alemaniar eta euren emazteak etorri ziren.
Jon idazlea da, eta bere emazteak ere bi liburu kaleratu ditu.
Mujika jaunak eta Nagorek aurkeztu dituzte urteko emaitzak.

Zuzen

Bi bikote alemaniar etorri ziren.
Jon eta Leire idazleak dira (senar-emazteak dira).
Mujika jaunak eta Perez andreak aurkeztu dituzte urteko emaitzak.

- Pertsonak izen, abizen, kargu, lanbidez identifikatu behar dira, ez andreak. Gizonekin abizena soilik aipatzen denean, andreekin gauza bera egin.

Oker

Miren andrea etorri da bilerara.
Apaolaza eta Montse joan dira ekitaldira.

Zuzen

Miren, idazkaria, etorri da bilerara.
Apaolaza eta Arratibel joan dira ekitaldira.

Ahaidetasun harremana adierazten duten hitzak nola erabili behar dira?

- Ahaidetasun-erreferentzia alferrekorik ez egin.

Oker

Alkate jauna eta bere emaztea.

Zuzen

Alkatea.

- Ahaidetasuna agertu nahi denean euskaraz hitz elkarketak ditugu. Orokorrean hitz egin nahi denean hauek erabili behar dira, eta inoiz ez maskulino generikoa. Generoa zehaztu nahi den kasuan dagokion aukera erabili behar da.

Oker

Gure osabek ezin izan dute bazkaritara etorri.

Gu zortzi anaia gara.

Zuzen

Gure izeba-osabek ezin izan dute bazkaritara etorri.

Gu zortzi anai-arreba gara.

(Emakumea) Nire alabak Maialen izena du.

(Gizona) Osaba Juanek 80 urte bete zituen atzo.

- Anaia hitza, senidetasun harremanetarako ez-ezik bestelako hitz eratorrietan erabiltzen da (anaitasun, anaiarte...). Hitz eratorri hauek modu generikoan erabiltzen direnean, beste possibilitate batzuk erabiltzea gomendatzen da(senidetasun, ahaidetasun, adiskidetasun...)

Oker

Guatemalar herriarekin anaitu da Irun.

Anaitasuna da taldearen ezaugarri nagusia.

Zuzen

Guatemalar herriarekin senidetu da Irun.

Adiskidetasuna da taldearen ezaugarri nagusia.

Hitanoa beti erabili al daiteke?

- Hitanoa ez dugu talde misto bati zuzendutako mezuan erabiliko. Salbuespena izango da, inperatiboa, kasu honetan aditz laguntzailerik gabe erabili baitaiteke.

Oker

(Orokorrean) Ipuin lehiaketan parte hartu ezak!

Zuzen

Parte hartu ezazu ipuin lehiaketan!

(Emakumeei) Jakin dinat etxea erostekotan hagoela, laguntzarik nahi al dun?

(Gizonei) Kultur agendaren berri emango al diat?

Zer egin genero bakoitzari egotzi izan zaizkion ezaugarriekin?

- Gizon eta emakumeei tradizionalki egotzitako ezaugarriak eta hauek agertzeko erabiltzen diren adjektiboak zaindu behar dira, adjektibo estereotipatuak ekidinez. Hona hemen adjektibo estereotipatu horietako batzuk.

Emakumeak

Lirain, polit, goxo, sentibera...

Gizonak

Ausart, gogor, indartsu, adoretu...

- Gizon hitzari lotuta maskulinitasun tradizionalari lotutako ausardia agertzen da batzuetan (gizon portatu, gizondu...). Emakumeei ez zaie hau esaten. Horregatik, ausardia agertzeko ez diogu gizontasunari erreferentziarik egingo (ausartu, ondo, ederto, ezin hobeto...portatu, etab.).

Oker

Etorri hona, gizona bazara!
Gizon portatu da gure mutila.

Zuzen

Etorri hona, ausarta bazara!
Ederki portatu da gure mutila.

- Emakumeak adjektiboen arabera aurkezteko joera dago; aldiz, ez da hau gertatzen gizonen kasuan. Ekidin egin behar dira halakoak, eta horrela eskatzen duen kasuan, lanbidearen edo bestelako ezaugarrien arabera aurkeztu.

Oker

Brad Pitt aktorea eta bere emaztea Angelina Jolie, beti bezain lirain, aurkeztu ziren Oscarretako festan.

Zuzen

Brad Pitt eta Angelina Jolie aktoreak (senar-emazteak) Oscarretako festara joan ziren.

- Neska eta emakume modu iraingarrian erabiltzen dira batzuetan, eta hori ez da egokia.

Oker

Negartia, neska bat dirudizu!
Emakumeak beti txutxu-mutxuka!
Ez daukazue potrorik! Neskak dirudizue!

Esaera zaharrak egokiak al dira?

- Esaera zaharrak eta atsotitzak erabiltzerakoan kontuz ibili behar da. Jakina da kasu askotan misoginoak direla. Hauek birformulatzea ezinezkoa izaten da. Euskadiko Kutzako komunikazioan hauek erabiltzea ekidin behar da.

Oker

Alaba baino, semea hobe!
Alaba bakarra, etxean gerra!
Ahuntza, atsoa eta emakumea, teman ez ditu inork irabaziko!

Erdararen eragina dela eta kontuz kalkoekin

- Erdaratik egindako itzulpenetan, kontuan izan behar da erdaraz hizkera sexista saihesteko perifrasi batzuk egon daitezkeela. Euskaraz horiek ez dira mantendu behar. Euskarak ez du genero gramatikalik eta horrenbestez ez du horiek zuzentzeko beharrik; hori egitean kalkoak sortzen dira.

Kalkoa

Programa populazio erabiltzaileari zuzendua dago.

Zuzen

Programa erabiltzaileei zuzendua dago.

- LGTBak (Lesbiana, Gay, Trans (transexual eta transgenero eta bisexualak) izendatzeko irain moduan erabili ohi diren izen eta hitz-elkarketak ez dira erabili behar; aldiz, kategoria hauen bisibilizatorako bestelako formak erabiltzea egokia da.

7. Irudiak erabiltzerakoan kontuan izan beharrekoak

- Pertsonak agertzen diren irudi guztietan zaindu behar da ematen den mezua, edozein dela ere hauen adina, etnia, erlijioa edo bestelako ezaugarria.
- Emakumeen bisibilizazioa bilatu behar da. Emakumeak ez dira ezkutuan geratu behar eta gizarteko isla izan behar du.
- Erabiltzen diren irudietan gizonen eta emakumeen arteko parekotasuna ager dadin bermatu behar da, bai irudi edo ilustrazio kopuruan (eta maiztasunean) baita hauetan agertzen diren errepresentazioetan.
- Generizatutako espazioetan emakumeak edo gizonak ez agertzea ekidin behar da. Eremu horietan ere tokia dutela agertu behar da.
- Eredu maskulinoak indartzen dituzten irudiak alde batera utzi eta bi generoak aintzat hartzen dituztenak edota neutroak direnak erabili.
- Emakume eredu desberdinak ikustaraztea: ez soilik emakume gazte eta lirainaren eredua. Errealitatea aurkeztu behar da.
- Emakumeak tradizionaltzat jotzen ez diren emakumeen rol eta jardueretan aurkeztu. Rol tradizionalak agertzen diren kasuetan (etxeko lanak) eredu berriekin uztartu (ordenagailuarekin, autoa konpontzen...).
- Gizonak tradizionaltzat jotzen ez diren gizonen rol eta jardueretan aurkeztu. Rol tradizionalak agertzen diren kasuetan (tailerra, futbolean, tabernan...) eredu berriekin uztartu (haurrak bainatzen, bazkaria prestatzen, gurasoak zaintzen...).
- Emakumeen eta gizonen arteko harremanak berdintasunean eta ez menpekotasunean agertu. Gizonak aginte moduan edota emakumeak menpeko edo/eta objektu bezala ez agertu.
- Emakumeen arteko harremanak emakume kategoriari egozten zaizkien estereotiporik gabe agertu (elkarri izorratzen, txutxu-mutxutan, etab.).
- Gizonen arteko harremanak gizon kategoriari egozten zaizkien estereotiporik gabe agertu (ausardiaz, indar erakustaldian, lehian...).
- Ikonoak erabiltzen direnean, neutroak erabili edo bestela emakume eta gizonak agertzen dituztenak.



Horregatik, zerbait irudikatzerako edota irudi bat aukeratzen dugunean, honako galdera hauek erantzutea komeni da:

-Emakumeek eta gizonek egiten al dute? Nola irudikatu nahi dugu?

-Agertu nahi dugun espazioa generizatua al dago (etxea, ile-apaindegia, tailerra...)? Egokia al da?

-Gizon eta emakumeen arteko hierarkiarik agertzen al da? (Bizitzako eremu desberdinetan ager daitezke: enpresan, familian, aisialdian, kirolean, lidergo politikoari dagokionean, gizarte mugimenduetan...). Erantzuna baiezkoa bada, zein eredu berri aurkez dezakegu?

-Dokumentuan agertzen diren beste irudiekiko oreka mantentzen al da?

8. Adibideak

Bizirauteko ezinbesteko tresna da gizakiontzat komunikazioa. Eta lanaren eremuan komunikatzea eta elkar ulertzea beste arloetan bezala beharrezkoa da. Lanak alderdi oso desberdinak ditu, eta horietako bakoitzak eremu desberdinetan eragiten du.

Enpresak gizarte eragileak dira eta horrenbestez erantzukizun soziala dute. Mondragon taldeko kooperatibek aspaldi ulertu genuen hau. Euskadiko Kutxaren enpresa filosofiaren eta enpresa kulturaren ardatz nagusietako bat da honakoa. Gizarte eragile izanik aberastasuna banatzeko ardura dugu, bai aberastasun ekonomikoa eta baita aberastasun soziala ere. Eta zentzu horretan, berdintasuna eskubide gisa aberastasuna dela ulertzen dugu.

Berdintasuna balio moduan transmititzea gure erantzukizuna da. Horretarako berdintasun irizpideak bete behar ditugu komunikazio mota guztietan: erakunde barnean zein kanpora begirako harremanetan (bezeroak, bezero-gaiak, bazkideen artean, enpresen artean, hornitzaileekin, etab.). Ondorengo orrialdeetan komunikaziorako euskarri posible batzuk jaso dira horien inguruko gomendio batzuekin; adibide moduan hartu behar dira..

- Gutunak
- Posta elektronikoa
- Webgunea, blogak eta Internet
- Oharrak eta jakinarazpenak
- Sinadura
- Fitxak, formularioak
- Lan poltsa eta lan eskaintzak
- Babestutako ekitaldiak eta ekintzak
- Prentsa oharrak



Jaun agurgarria:

Jakingo duzunez, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako III. Plana egiteko prozesua abiatu zuen Irungo Udalak martxoan.

Planaren diseinua parte-hartze prozesu baten bidez gauzatzen ari gara eta oso garrantzitsutzat jo dugu zuok ere, merkataritza eta ostalaritza arloko eragileak, prozesuan inplikatzeari. Herritarrekin kontaktu zuzena duzue egunerokoan eta auzoetako bizitza eta dinamiken jakitun zarete. Horregatik, zuon iritziak, ikuspegiak, ekarpenak eta zalantzak jaso nahi ditugu. Horretarako bilera bat deitu dugu bileran esperientzia eta hausnarketa pertsonaletik abiatuta Irungo hiriko dinamiketan berdintasuna lantzeko ekintzak elkarrekin identifikatu ditzagun..

Merkataritza eta ostalaritza eremuko eragileekin bilera **maiatzaren 8an egingo da, 9:30ean**, Ospitale Zaharreko hitzaldi aretoan, Urdanibia plazan.



Adiskide agurgarria:



Jakingo duzunez, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako III. Plana egiteko prozesua abiatu zuen Irungo Udalak martxoan.

Planaren diseinua parte-hartze prozesu baten bidez gauzatzen ari gara eta oso garrantzitsutzat jo dugu zuok ere, merkataritza eta ostalaritza arloko eragileak, prozesuan inplikatzeari. Herritarrekin kontaktu zuzena duzue egunerokoan eta auzoetako bizitza eta dinamiken jakitun zarete. Horregatik, zuon iritziak, ikuspegiak, ekarpenak eta zalantzak jaso nahi ditugu. Horretarako bilera bat deitu dugu esperientzia eta hausnarketa pertsonaletik abiatuta Irungo hiriko dinamiketan berdintasuna lantzeko ekintzak elkarrekin identifikatu ditzagun.

Merkataritza eta ostalaritza eremuko eragileekin bilera **maiatzaren 8an egingo da, 9:30ean**, Ospitale Zaharreko hitzaldi aretoan, Urdanibia plazan.

- Hartzailea bati baino gehiagori bidaltzen badiogu edota hartzailea ezagutzen ez dugunean, ez zehaztu sexua. Erabili bazkide, adiskide edo antzeko moduak.
- Hartzailearen izaera zehazten denean (zuzendari, lehendakari, arduradun, bezero, bazkide, lankide ...) ez dugu jaun edo andre hitza erabiliko. Agurgarria, estimatua edo antzerako formulak erabiliko ditugu.

POSTA ELEKTRONIKOA



- Emailetan ere hizkuntzaren erabilera arreta berezia jarri behar da, testuetan zein irudietan.
- Talde bati idazten diogunean, generoari ez diogu erreferentziarik egingo. Horregatik, agurtzerakoan aukera neutroak edo generikoak erabiliko ditugu (guztiok, taldekideok, etab.)
- Hartzailea bakarra denean eta bere generoa ezagutzen dugunean, modu zehatzak erabili ahal izango dira (neska, mutil, andre, jaun ...)

WEBGUNEA, BLOGAK, INTERNET

[Irunen bizi](#) > [Albiste zerrenda](#) > [Gaur Irunen](#)

[Hasiera](#)

[Albiste zerrenda](#)

→ Gaur Irunen

→ Gazte Informazioa

→ *** GAZTE ARTEAN ***

Gazteen sorkuntzarako eta adierazpenerako jarduerak biltzeko programa.

Sorkuntza, berrikuntza, prestakuntza, ikaskuntza eta aisialdia da "Gazte Artean", eta emanaldiak, txapelketak, topaketak, jardunaldiak? eskaintzen ditu hainbat eremutan: Ikus-entzunezkoan, diseinuan, ilustrazioan, komikian, IKT-etan, hiriko artean, dantzan?

13-25 urte bitarteko gazteei zuzentzen zaie. Zentzat eta zuekin abian jartzen da sorkuntza, berrikuntza, prestakuntza eta aisialdia biltzen dituen programa bat.

Programa eta jarduera guztiak [GAZTE ARTEan blogean](#) jarraitu ahalko dira.

**** [2013an aurrera eramango diren proposamenak](#) ****

*



- Hizkuntza eta irudi generikoak erabili. Emakumeak eta gizonak barneratu.
- Rol estereotipatuak baztertu eta tradizionalki emakumeen jardueratzat jo izan ez diren ekintzak egiten jarri emakumeak, eta gauza bera egin gizonen kasuan ere.
- Ikonografia barneratzailea erabili (emakume zein gizon barne hartzen dituen). Ezkerreko adibideari jarraiki ahoa guztiok konpartitzen dugu eta ondorioz neutroa da; horrez gain bigarren mailan agertzen diren pertsonak emakumeak zein gizonak dira.
- Irudi eta mezu sexistarik ez erabili.

➤ Gaur Irunen

➤ Gazte Informazioa

➤ Praktika ordainduak atzerriko enpresetan 30 urtetik beherakoentzat


Eusko Jaurlaritzak **Global Training 2013 programa** abian jarri du

Garapen Garapenari buruzko agentzien Euskal erakundeak 10 beka GLOBAL TRAINING tramitatuko ditu gazteen profesionaltasuna eta nazioartekotasuna bultzatzeko **Global training** herrien arteko mugikortasun programa bat da. Horri esker, unibertsitateko titulazioa eta goi mailako lanbide prestakuntza duten **30 urtetik beherako gazteek** ordaindutako praktikak egin ahalko dituzte **atzerriko enpresetan eta erakundeetan**, beren profil akademikoarekin eta profesionalarekin lotutako jardueretan eta proiektuetan, **6 hilabetez**.

Programa hau Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak finantzatzen du.

Izena emateko epea: Epea 2013ko ekainaren 14an hasi da eta **2013ko uztailaren 15ean amaituko da**.

Informazio gehiago [hemen](#)



- Emakumeak modu aktiboan agertu.
- Emakumeei hitza eman, gizonen bezala. Ekarpinak parekoak izan daitezten saiatu.
- Argazkietan parekotasuna bilatu.
- Argazkietan eta ikus-entzunezkoetan emakumeak eta gizonak maila berean jarri.
- Emakumeak agertzea ohiko ez den eszenatokietan edota jardueretan ager daitezten bermatu. Protagonismoa eman emakumeei argazkietan lehenengo edo aurrean jarritz.
- Gizonak agertzea ohiko ez den eszenatokietan edota jardueretan ager daitezten bermatu.
- Emakumeek eta gizonen sinatutako sarrera, irudi edo bestelako enpresaren autoretza parekoa izan dadin bermatu.

OHARRAK ETA JAKINARAZPENAK



OHARRA/ JAKINARAZPENA	
Nori?	in.
Nork deitu du?	in.
Oharra:	
Nork jaso du deia?	anderea
Telefonoa:	
Emaila:	
Eguna:	Ordua:

OHARRA/ JAKINARAZPENA	
Nori?	
Nork deitu du?	
Oharra:	
Nork jaso du deia?	
Telefonoa:	
Emaila:	
Eguna:	Ordua:

Mezu eta jakinarazpenetan igorle edo hartzailearen generoa ez da informazio interesgarria. Generoak ez du mezua maila baldintzatzen. Horregatik, ez da egokia generoa jasotzea.

SINADURA



Ioritz Unanue Jn.

Komunikazio Arduraduna

☎ 943505344 / 📠 943505344

✉: iunanue@irun.org



Ioritz Unanue

Komunikazio Arduraduna

☎ 943505344 / 📠 943505344

✉: iunanue@irun.org

- Generoa aurkezpen txarteletan erabiltzea ez da egokia.
- Generoak ez du lanpostua baldintzatzen. Ondorioz, horiek batera agertzea ez da informazio gehigarria, ez eta interesekoa ere.

FITXAK - FORMULARIOAK

- Izen-abizenak idazterakoan ez da genero tratamendurik egingo (jauna, andrea)
- Interesgarritzat jotzen den kasuetan sexuari buruzko informazioa jaso daiteke.
- Sinaduraren ondoan ez da jaun / andre aukera jasoko.
- Dokumentua talde baten izenean doanean, ordezkariak sinatuko du.
- Kontu korrante bat bi pertsonen izenean dagoenean, lehenengo agertuko den izena bezeroak erabakiko du. Ohikoa izan da (ezaugarri historikoen ondorioz), aldatzen doan arren, gizonak jartzea lehenengo, bezeroek horrela ikusten dutelako. Kasu hauetan, zein eskaera orriak edo galdetegiak betetzerako orduan bietako edozeinek egin dezakeela gogoratuko zaie.



DITZEKO ZERBITZUA - AYUNTAMIENTO DE IRUN SERVICIO DE ATENCIÓN CIUDADANA
 Ir. C/Oriz 3, 48103, 2 - 20302 IRUN - Tel. 943 505152 - Fax 943 505657 - E-mail: sac.010@irun.org



BIZTANLEEN ERROLDAN ALTA EMATEKO BAIMENA

Familia burua

JABEA

MAIZTERRA

IZEN-ABIZENAK	NORTASUN DOKUMENTUAREN ZA /

BAIMENTZEN DUT /

*Erroldan izena emanago duten pertsona guztiak sartu behar dira.
 Se deberán incluir todas las personas que se vayan a empadronar*

IZEN-ABIZENAK	NORTASUN DOKUMENTUAREN ZA /

Udal Erroldan izena eman dezan/dezaten adierazten den helbidean

HELBIDEA			
HERRIA	P.K.	PROBINTZIA	TELEFONOA

LAN POLTSA ETA LAN ESKAINTZAK

KONTSERBATORIOKO IRAKASLEAK BEHIN BEHINGOAN KONTRATATZEKO ETA LAN POLTSA OSATZEKO PROZESUAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

I. DEIALDIAREN XEDEA

Oinarri hauen xedea, Oboe irakasle lanpostua, Tronboi-Tuba irakasle lanpostua eta Biola-Biolin irakasle lanpostua oposizio bidez, bitarteko izaerarekin, betetzeko eta antzeko postuetan langile-premia ez iraunkorrak betetzera bideratuko diren Lan-Poltzak osatzeko deialdia eta hautaketa prozesua erregulatzea da.

Lan kontratuak bitartekotasun modalitatean egingo dira eta lanpostu horiek legez ezarritako prozeduren arabera behin betiko betetzeko hautaketa prozesua onartu eta burutzeak irauten duen denborarekin edo, bere kasuan, lanpostua amortizatzearekin bat etorriko da kontratu horien iraupena.

Plaza eta lanpostuen ezaugarriak:

Plaza: Administrazio Bereziko Zeregin Bereziak

Postua: 445-Oboe irakaslea

Taldea: A1

Lanpostu-mailako Osagarria: 23

Osagarri Espezifikoa: 9.915,00€ (lanaldi osoan)

Hizkuntza Eskakizuna: 2. hizkuntza eskakizuna, derrigorrezkotasun-data indarrean. Baldintza hau betetzea ez da exijituko Lan-Poltsan parte hartzeko.

Titulazioa: Goi mailakoa, II. Oinarrian ezartzen dena kontuan hartuz.

Dedikazioa: %33,33



- Lan poltsak osatzerakoan zein lan-eskaintzak argitaratzerakoan hizkuntza generikoan erabiliko dugu, emakume zein gizon lan-posturako identifikatuak sentitu daitezen.
- Lanpostuen deialdiak egiteko erabilitako irudi, grabazio edo ikonografiari dagokionez mezua gizon eta emakumeak maila berean barne hartzen dituen izango da.
- Ahotsak edo irudiak aukeratzekoan neutroa izatea, emakumeak agertzea edo parekotasuna bermatzea bilatuko da.
- Eskaintzen den lanpostua tradizionalki genero bati lotua egon bada, emakume zein gizonen bila ari garela zehaztuko dugu.

BABESTUTAKO EKITALDI ETA EKINTZAK



- Babestutako ekintzak antolatzen direnean karteletan emakumeak modu aktiboan aurkeztu.
- Protagonistak dauden kasuetan euren merituengatik aurkeztu eta ez aipatu euren generoa; genero-arrazoiak tarteko berdintasunaren aldeko aldarrikapenak egin nahi ezean behinik behin.
- Ematen diren mezuetan diskriminaziorik ez dela egongo bermatu behar da.





→ Gaur Irunen

→ Alkatetza

→ Irunek 2013an zehar gogoratuko du trenaren 150. urtemuga

Batzorde antolatzailean Irungo udalak parte hartzen du trenbide sektoreko enpreekin eta hiriko hainbat kultur eta gizarte entitatearen lankidetzarekin

Egitaraua gaur aurkeztu da Adifeko Irungo tren geltokian. Urtean zehar gauzatuko diren jarduerak sartzen dira, eta martxoan hasiko dira hitzaldi eta erakusketa banarekin

2013. urtean trenbidea Irunera iritsi zen 150. urtemuga izango da. *Gertaera horrek hiriaren historia aldatu zuen eta 1863ko hiri hura irauli egin zuen, gaur egungo hiri bilakatzeko". José Antonio Santano Irungo alkateak hitz hauekin hasi da gaur goizeko aurkezpena Adifeko Irungo tren geltokian egin duen aurkezpena, ekitaldi egitaraua aietuz; "oraindik ere eraikitzen ari da" hitz hauekin sozialki urbanistikoki eta ekonomikoki Irun aldatu zuen gertaera historiko hark izan zuen garrantzia azpimarratu nahi izan du.*

Gaur goizeko aurkezpenean ekitaldi horietako Batzorde antolatzaileko entitate partaideetako askok parte hartu dute. Udalaren ordezkariak alkatea eta udal talde politikoetako bozeramaileek parte hartu dute eta Adifeko Komunikazio ordezkaria Iparraldean Amaya Lezama; horiez gain, programazio honetan, 7301 Trenaren Lagunak elkarte bidasoarrak, Bidasoako elkarte numismatiko eta filatelikoak, Irungo Argazkilaritza Elkarteak, San Migel Auzo Elkarteak eta trenbidearen sektorearekin lotutako Renfe eta Transfersa enpresek ere parte hartu dute, eta haiekin batera, Mertxe Tranche. Dagoeneko hitzaldi bat prestatzen ari da Udal Artiboarekin batera, 1863an izandako aldaketan berri emateko.

Erakusketa eta hitzaldi bat, hasieran

Programako lehen jarduera martxoaren 5an (asteartea) izango da. Trantxek hitzaldi bate mango du Irungo Udaletxeko areto nagusian. Bertan, gurea bezalako hiri batean trenbidearen ezarpenak ekarri zituen aldaketek buruz hitz egingo du, eta nolako bilakaera izan zuen harrezkero Irungo gizarteak, ekonomiak eta hirigintzak. Hain zuzen ere, 2013. urte honetan Policarpo Balzolaren jaiotzaren 200. urtemuga izango da. Policarpok Colon ibilbidea diseinatu zuen, Irungo erdialdea tren geltokiaren inguruan sortu zen auzo berriarekin lotzen zuen bide gisa.



- Pertsonen erreferentzia egitean kasuak hala eskatzen ez badu behintzat, ez zaio bere generoari erreferentzia egingo; arreta bere merezimenduetan jarriko da.
- Pertsona desberdinak izendatu behar direnean orden alfabetikoaren arabera egingo da.
- Prentsa oharretan estereotipoak ez dira erabiliko.
- Testuaren gai nagusiaren atzean desberdintasun egoera bat badago, emakumeak gutxiengo maila batean kokatzen edo egoera baztertzailerak bizitzera eramaten dituen, aukera dagoenean ikusarazi egingo da.

9. Glosategia

Sexua: gorputz biologikoaren ezaugarri anatomiko eta fisiologiko multzoa, ar eta eme artean bereiz daitekeena.

Generoa: gizarte bakoitzak pertsonen arteko elkarrekintzan sortzen, berresten eta eraldatzen dituen sexu-desberdintasunen gaineko nolakotasun eta esanahi kulturalak.

Genero estereotipoak: giza talde batek genero-kategoria bakoitzari egozten dizkion ezaugarri multzo zurruna.

Genero rolak: genero-kategoria bakoitzari gizarteak arau gisa esleitzen dion jokamoldeak.

Sexu-genero teoria: sexu biologikoaren gainean interpretazio bereizlea egiten duen gizarte-sistema, sexu-kategoria bakoitzari elkarren artean desberdintzaile diren rol, balio, arau eta portaera sozialak atxikiz eta horien artean hierarkia harremanak sortuz. Generoaren arabera botere-harremanak ezartzen dituen gizarte-sistema da, non gizonek emakumeek baino botere handiagoa duten, gizon izate hutsagatik.

Genero diskriminazioa: pertsona bat gutxiatea genero arrazoiak tarteko.

Diskriminazio zuzena: genero arrazoa tarteko egiten den ageriko diskriminazioa da, pertsona hori gutxietsiz eta honen eskubideak urratuz.

Zeharkako diskriminazioa: itxuraz generoagatik baldintzatua ez dagoen ekintza, erabaki edo egoera batean, desabantaila egoeran egotea generoak baldintzatzen duelako.

Maskulino generikoa: gizarte osoari erreferentzia egin nahi zaionean, maskulinoa erabiltzea pluralean. Euskaraz orokortasuna adierazteko ez da maskulino generikoa erabiltzen. Aldiz, aldameneko hizkuntzetan ohikoa da halako formak aurkitzea, eta ondorioz, erdararen eraginez, euskaraz ere horrelako akatsak topatzea posible da.

Zeharkakotasuna eta mainstreaminga: berdintasun irizpideak arlo guztietan aplikatzea eta aspektu guztietan aplikatzea eta horretarako erantzukizuna konpartituz erakundeetan berdintasunaren kultura erroto dadin.